

37. atala: Taldean

Munduko guda

37.1.- Entzun audioa, eta binaka jarrita erantzun galderei:

- Nolakoa iruditu zaie astronautei duela hogeituro urteko guda?
- Nola sartu zuen hanka Androidek Kevinen esanetan?
- Guda horretan zein aldetan zegoen Tasio?
- Nork irabazi zuen guda?
- Zenbat denbora egon ziren telefonorik gabe?



37.2.- Gaur egun gehienok erabiltzen dugu telefono mugikorra. Nolakoa da zurea? Zergatik aukeratu zenuen horrelakoa? Binaka jarri eta eman arrazoiak:



Adibidez:

- *Nire telefonoak Android sistema du, baina ez nuen nik aukeratu, oparitu egin zidaten. Nik nahiago nuen i-phone bat.*
- *Nirea ere zurea bezalakoa da, Androida, eta nik erosi nuen. Nire beharretarako nahikoa eta egokia da.*

37.3.- Etxeko txiki eta nerabeen gogoko produktuen artean izarrak, dudarik gabe, telefono mugikorrak eta tabletak dira, baina hori arazo-iturri bilakatu da gure gizartean. Irakurri beheko artikulua eta eman iritzia taldean, galderei erantzunez:

Guraso askorentzat gaia buruhauste bilakatu da: zertarako behar du 11 urteko ume batek sakelako telefona? Zer egiten du 8 urteko batek tabletarekin?

Hasteko, argi izan behar ditugu ezaugarri batzuk: egia da gailu horiek ez direla lehen mailako beharrak; garaiak asko aldatu dira eta aisia gaur egun beste era batean disfrutatzen da. Telefonoen erabilpen nagusia ez da deiak egitea.

Smartphona argazki eta bideo-kamara da, musika deskargatu eta entzuteko gailua da, jolasteko makina, lagunekin harremanetan egoteko tresna, eta interneterako sarbidea dauka. Horri esker, informazioa bilatu, posta elektronikoa kontsultatu, sare sozialetan aritu eta beste hainbat gauza egin daitezke.



37. atala: Taldean

Nola jokatu behar dugu, beraz, haur eta nerabeekin? Hasteko, kontuan hartu beharreko lehenengo baldintza honakoa da: 14 urte baino gutxiagoko gazte batek gailua inolako arau eta kontrolik gabe erabiliko badu, hobe da ez erostea.

Nola lortu, horrelako gailuak erabiliz nerabeekiko binomio horretan, bizikidetzan bermatzeko oinarrizko baldintzak? Urrezko arau batzuk finkatuko ditugu:

- Gailuen bidez erosketak edo aplikazioen deskargak egin ahal izateko pasahitz bat ezarri. Pasahitz hori ezin du gazteak ezagutu.
- Pribatutasuna zaintzeko oinarrizko baldintza batzuk irakatsi: pantailak desblokeatzeko gakoak ezartzea.
- Antibirusak jarri ordenagailu, tablet eta sakelako telefonoetan.
- Mugikorra edo tableta erabiltzeko denbora arautu eta mugatu: ordutegiak eta tarteak adostu.
- Gailuak inolaz ere erabili ezin izango diren tarte eta uneak finkatu eta zehaztu: jatorduetan, famili bileretan..., adibidez.
- Gailuen erabilpena etxean partekatzen diren lekuetan egin, ateak zabalik daudela.
- Sare sozialetan profilak izanez gero, noizean behin ezarritako pribatutasun-maila eta baldintzak elkarrekin berrikusi eta doitu, baita sare horietan onartu dituzten erabiltzaile berriekiko harremanak eta abar.
- Partekatzen dituzten edukiei arreta jarri, batez ere argazki eta bideoen kasuan. Ohitura batzuk hartu horrelako edukiak argitaratu nahi dituztenean: edukia erakustea argitaratu aurretik eta baimena eskatzea.
- Aplikazio berriak deskargatzerakoan, bakoitzaren erabilpen-baldintzei buruzko ardura izatea sustatu: elkarrekin birpasatu baldintzak, datu pertsonalen babesaren inguruko ardura ...
- WiFi seinale eta sare ezezagunetara konektatu baino lehen segurtasuna bermatzeari buruzko ardura izatea azaldu.
- Gurasoen kontrola ezarri gailuen ezarpenetan posible denean, eduki desegokietara jotzeko aukera saihestuz.

Azkue Fundazioaren Egunkaria (moldatua)

- Egokia iruditzen al zaizu 14 urtetik beherakoek smartphona edota tableta izatea? Zergatik?
- Oro har, gurasoek kontrol egokia egiten al dute ume eta nerabeen sakelako eta ordenagailuen erabileran?
- Artikuluan aipatzen diren "urrezko arauak" komentatu banan bana. Zer iruditzen zaizkizue? Egokiak? Egingarriak?
- Ezagutzen duzu esperientzia txarren bat? Zer gertatu zen?



37. atala: Taldean

Transkripzioa (03:09)

T- Akordatzen duela 20 urteko munduko gerraz?

K- Jo, bai.

T- Hi ze bandotan egon hintzen?

K- Irabazleen bandoan.

T- Hara, baita ni ere.

K- Joder, gogorra izan zen, e?

T- Bai, latza

K- Nik uste dut ez dudala sekula hain gaizki pasa nire bizitzan.

T- Ezta nik ere.

K- Momentu batean pentsatu nuen gizakiak, dinosauroei gertatu bezala, desagertzera kondenatuak geundela.

T- Jende askok bere buruaz beste egin zian, e?

K- Ja, ez nau harritzen, e? Nik ere pentsatu nuen.

T- Bueno eta nik ordurako seme-alabak nituelako, bestela...

K-Ja, gogorra izan zen isolamendu hura.

T- Joder, inkomunikazioa.

K-Fua, bakardadea.

T- Ez zekiat, hala ere, nola izan zen posible egoera hartara iristea.

K- Bueno, bi bando hain nabarmen daudenean, lehenago edo beranduago, beti gertatzen da.

T- Ja, baina bi bandoek zizkiaten beren jarraitzaileak, biek ziaten beren merkatua.

K-Nik uste saihetsezina zela azkenean Apple-n iOS eta Android-en arteko guda hura.

T- Nik uste Applelek burua galdu zuala.

K-Burua galdu? Nola burua galdu?

T- Bai, diseinua, prezioak, gero eta ergelkeria gehiago hasi hituan diseinatzen eta telefonoetan sartzen.

K-Bada, nire ustez, Androidek sartu zuen hanka. Batetik eztanda egiten zuten telefonoen kontu hura eta gero, prezioak hainbeste jaitsita pirateoa sustatzeko erraztasunak eman zituzten. Horrek ekarri zuen bere akabera.

T- Aber, baina orduan zein bandotan egon hintzen?

K- Jakina, Apple, iOS-ekin, eta zu?

T- Pertsona zentzudun eta serioen bandoan, beti Android.

K-Baina, ez al duzu esan irabazleen bandoan zeundela?

T-Jakina, eta hala duk, guk irabazi genian.

K- Kar, kar, bai, zuek irabazi... nahi bai, gizarajoa, zure moduko androideak beti izan zarete gizarajo batzuk.

T- Beti jakin diagu Apple sekta bat huala. Hire moduko ergelekin elikatzen huan sekta.

T-Zenbat iraun zian telefonorik gabe utzi gintuen munduko guda hark?

K-Jo, bada, ez dakit. Nik esango nuke 3 hilabete-edo izan zirela, e?

T-Jo, nik urteak izan balira bezala oroitzen diat hura.

K-Espero dut inoiz berriro ez gertatzea.

T- Ezinezkoa duk, nik uste ikasi dugula. Telefono mugikorrik gabeko mundu batean, gizakia... malkoak eurian desagertzen diren moduan desagertuko hukek.

Erantzunak

37.1.-

- Oso latza. Isolamendua oso gogorra iruditu zitzaien.
- Batetik, eztanda egiten zuten telefono horien kontuagatik, eta bestetik, prezioak jaitsiz eta pirateoa sustatuz.
- Androidekin, pertsona zentzudun eta serioekin, bere esanetan.
- Ez da esaten. Tasioren iritziz Androidek, eta Kevinen iritziz, iOSek.
- Hiru hilabetez.